**2009ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 10 TOKI ADMINISTRAZIOA ETA LURRALDE OREKA

**Programa:** 17 INBERTSIOAK TOKI ERAKUNDEETAN

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2009**

**Departamento:** 10 ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

**Programa:** 17 INVERSIONES EN ENTIDADES LOCALES

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

**I. <u>MEMORIA</u>**

GASTUAK

17 Programak Toki Administrazioaren eta Lurralde Orekaren Sailak kudeatzen dituen tresna nagusiak bildu ditu, hain zuzen, toki erakundeek obra eta zerbitzuetan egiten dituzten inbertsioetan parte hartzeko, laguntza baldintzatuen bitartez.

Programa hori bi azpiprogramatan banatzen da eta honako hauek dira:

**I - <u>Inbertsiorako eta lurralde orekarako planak</u>**

Azpiprograma honek inbertsiorako plan nagusiak biltzen ditu.

*1.- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana*

Apirilaren 24ko 14/1997 Foru Arauak Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kudeaketarako programa arautzen du. Foru Arau horrek Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta Arabako Foru Aldundiak toki erakundeei obra eta zerbitzuetarako emandako beste laguntza tresna batzuk arautzen ditu.

Aipaturiko arauan xedatutako lurralde eta sektoreetako helburuez gain, bere funtsezko oinarriak hauek dira:

1. Lurralde oreka.
2. Toki erakundeen arteko lankidetza.
3. Lurralde historikoko toki erakundeen bertako autonomia eta eskuduntza bereziak errespetatzea.
4. Publizitatea eta objektibotasuna

Honen partida ekonomikoa gutxienez Arabako Foru Aldundiak dauzkan baliabide ekonomikoen % 3,70 da, hala xedatzen baitu Foru Arauak eta bere funtsek hurrengo helburuek bete behar dituzte:

**I. <u>MEMORIA</u>**

GASTOS

El Programa 17 recoge los principales instrumentos que gestiona el Departamento de Administración Local y Equilibrio Territorial para la cooperación a la inversión de las Entidades Locales en obras y servicios, a través de ayudas de carácter condicionado

Este programa se divide en dos subprogramas, que responden a:

**I - <u>Planes de Inversión y Equilibrio Territorial</u>**

Este subprograma recoge los principales planes de inversión.

*1.- Plan Foral de Obras y Servicios*

La Norma Foral 14/1997, de 24 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios y de otros instrumentos de cooperación de la Diputación Foral de Alava a las obras y servicios de las Entidades Locales regula el Programa a través del cual se gestiona el Plan Foral de Obras y Servicios.

Además de los objetivos territoriales y sectoriales establecidos en la citada Norma, son sus principios inspiradores:

1. El equilibrio territorial.
2. La cooperación con las Entidades Locales.
3. El respeto a la autonomía local y a las atribuciones peculiares de las Entidades Locales del Territorio Histórico.
4. Publicidad y objetividad

La partida que lo sustenta viene dotada con, al menos, el 3,70% de los recursos económicos disponibles por la Diputación Foral de Alava, según lo establecido por Norma Foral, y cuyos fondos se destinan a:

a) Lehen aipaturiko foru arauko 7. artikuluak zehazten dituen obrak eta zerbitzuak finantzatzeko dirulaguntzak.

b) Plan horretan sartzen diren proiektuen idazketa eta obren zuzendaritzak ordaintzeko dirulaguntzak.

*2.- Toki Erakundeen Inbertsioetarako Plan Bereziak.*

*2.1- Lur azpiko Kanalizazioen Plan Berezia.*

Toki erakundeei azpiegituren kanalizazioa lurperatzeko, energia hornitzeko, argiteria, komunikazioa eta abarrentzako emandako laguntzak barne hartzen ditu epigrafe honek.

*2.2- Toki Erakundeak Finantzatzeko Funts osagarria*

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren 2009 Deialdian eskatu eta aipatu planaren kargura dirulaguntza eman ez zitzaien ekipamendu obren kostua finantzatzeko dirulaguntzak ematea da deialdiaren helburua.

*2.3.- Probintziaren gasifikazioa.*

Partida honen helburua gas hornidurari dagozkion kanalizazioetatik datozen kostuak finantzatzea da, kanalizaziook lurra altxatzea edo enpresa banatzaileak finantzatutako gasifikazio kanalizazioak aldatzea, berritzea, hobetzea edo hedatzea dakartzatelako.

2.4.- *Auzokideen arteko Harremanen Sustapena*

Partida honen helburua toki erakundeek burututako obra eta ekipamendu konponketak finantzatzen laguntzea da, kontzejuetako obra horiek auzolan sistemaren bidez egiten badira. Hau da, erakundea osatzen duten bizilagunek eskulanak eta lanabesak, animaliak edo garraio-ibilgailuak jartzen badituzte.

**II- <u>Landa ongizatea hobetzea</u>**



a) Subvenciones económicas para la financiación de las obras y servicios que quedan recogidas en el artículo 7 de la Norma Foral antes citada.

b) Subvenciones económicas por los honorarios de redacción de proyectos y direcciones de obras que sean incluidas en el Plan.

*2.- Planes Especiales de Inversiones de las Entidades Locales.*

*2.1- Plan Especial de Canalizaciones subterráneas.*

Se recogen bajo este epígrafe las ayudas concedidas a Entidades Locales para el soterramiento canalizado de infraestructuras, suministros de energía, alumbrado, comunicaciones, etc.

*2.2- Fondo complementario de inversiones de la Entidades Locales*

El objeto de la convocatoria es la concesión de subvenciones para financiar el coste de las obras de equipamiento solicitadas en la Convocatoria 2009 del Plan Foral de Obras y Servicios, que no hubieran resultado subvencionadas con cargo a dicho Plan.

*2.3- Gasificación de la Provincia.*

El objetivo de esta partida es la financiación de los costes derivados de las canalizaciones subterráneas relativas a suministros de gas que supongan remoción del suelo, o cambio, renovación, mejora o ampliación de las canalizaciones de gasificación financiadas por la compañía distribuidora.

2.4- *Promoción de Relaciones Vecinales*

El objetivo de esta partida es ayudar la ejecución de obras y la reparación de equipamientos que realicen las Entidades Locales por el sistema de veredas de obras concejiles o auzolan, es decir con la aportación de mano de obra y herramientas, animales o vehículos de transporte de los habitantes que componen la entidad.

**II- <u>Mejora del Bienestar Rural</u>**

Azpiprograma honetan, mota askotako partidak daude, handiagoak eta txikiagoak. Denak ere landa aldeetako biztanleen bizi kalitatea hobetzeko jarduketetan inbertsioak egiteko partidak dira, askotariko jarduketetako inbertsioen bitartez.

Aurreko ataletik bereizten da; alde batetik, laguntzak ez direlako benetako inbertsio planak bezala kudeatzen, aitzitik, esku hartze puntualei erantzuten diete; beste alde batetik, laguntzen kudeaketa arinagoa eta malguagoa delako.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE MAILA

**Programaren xedea:** *Arabako landa aldeetako biztanleen ongizatea areagotzea, toki erakundeek egiten dituzten obra eta zerbitzuetan lagunduz eta zerbitzu eta ekipamendu funtzionalez eta aisiakoez hornituz*

Helburu honen gauzatze maila hainbat ikuspuntutatik eta hainbat adierazle kontuan hartuta azter daiteke. Hala ere, helburu hau ezin daiteke epe motzera mugatu ez bere analisian ez bera lortzeko neurrien formulazioan. Hori dela eta, urte bateko ekitaldi bakar batean bete den ala ez egiaztatzea ia-ia ezinezkoa da, emaitzak epe labur edo ertainean islatzen dituzten aldagaiak direlako. Edonola ere, Arabako landa eremuetako biztanleek eskura dituzten azpiegituren eta ekipamenduen egoera nola garatu den aztertuta, baiezta daiteke helburuak betetzen direla, ditugun baliabideek ahalbidetzen duten neurrian.

**I - Inbertsiorako eta lurralde orekarako planak**

1.- Obra eta Zerbitzuen Foru Plana:

2009 Programan zenbait laguntza eman dira –guztira: 14.638.752,62 euro- bi emakiden bitartez

- 1. emakida: Diputatuen Kontseiluaren 487/2009 Erabakia, uztailaren 28koa (ALHAO, 99. zk., 2009ko abuztuaren 31koa): hainbat laguntza eman ziren –guztira: 12.510.752,62 euro-



Agrupa este subprograma partidas de diversa índole y magnitud, destinadas a la inversión en actuaciones que representen incremento en la calidad de vida de los habitantes de las zonas rurales mediante la inversión en actuaciones de carácter variado.

La diferencia con el bloque anterior radica por una parte en que no son gestionadas como planes de inversión propiamente dichos, sino que están llamadas a responder a intervenciones puntuales, y por otra parte en que ofrecen mayor agilidad en la gestión de las ayudas así como mayor flexibilidad

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

**Objetivo del Programa :** *Incrementar el nivel de bienestar de la población rural de Alava, cooperando en las obras y servicios que ejecuten las Entidades Locales, así como con la dotación de servicios y equipamiento de carácter funcional y de ocio*

El cumplimiento de este objetivo puede analizarse desde muy diferentes perspectivas y mediante multitud de indicadores. Sin embargo se trata de un objetivo que no puede circunscribirse al corto plazo, ni en su análisis ni en la formulación de las medidas para lograrlo, por lo que la constatación de su cumplimiento en un sólo ejercicio anual es prácticamente imposible, cuando se trata de variables que reflejan resultados en el medio/largo plazo, y no siempre cuantitativamente. De cualquier forma el análisis de la evolución de la situación de las infraestructuras y equipamientos de que se ve dotada la población rural alavesa son el referente que permite afirmar que los objetivos se cumplen, en la medida de las disponibilidades para poder alcanzarlos.

**I - Planes de Inversión y Equilibrio Territorial**

1.- Plan Foral de Obras y Servicios:

En el Programa 2009, se han concedido ayudas por importe total de 14.638.752,62 €, mediante dos concesiones

- 1ª Concesión: Acuerdo del Consejo de Diputados 487/2009, de 28 de julio (BOTHA, nº 99 de 31 de agosto de 2009): se concedieron ayudas por importe de 12.510.752,62 €

(7.536.533,42 euro 2009 ekitaldiaren kargura eta 4.974.219.20 euro 2010eko konpromiso kredituaren kargura)

- 2. emakida: Diputatuen Kontseiluaren 760/2009 Erabakia, azaroaren 17koa (ALHAO, 139. zk., 2009ko abenduaren 4koa): hainbat laguntza eman ziren –guztira: 2.128.000,00 euro-.

14/1997 Foru Arauaren barruko xedapena aldatzen duen ekainaren 15eko 9/2009 Foru Araua onartzeak aldaketa esanguratsuak ekarri ditu, honako hauek:

- Obra zibilaren dirulaguntzak jaso ditzakeen obra edo zerbitzu kategoriari elektrizitatearen, telekomunikazioaren, gasaren eta argiteria publikoaren etxeko honiketari buruzko lurazpiko kanalizazioen obrak gehitu zaizkio.
- 12. artikuluko 2. idatz zatia indargabetu da. Horren bidez dirulaguntzen onuradun diren toki erakundeek diruz lagundutako obra edo zerbitzua finantzatzeko eskuragarri dauden finantza baliabideen % 50 emateko betebeharra ezabatu da.
- 14/1997 Foru Arauaren I. eranskineko moduluen balioak eguneratu dira. Ondorioz, zolaketa eta ekipamendu obren diruz lagun daitezkeen aurrekontuen zenbatekoak nabarmen handitu dira.

Bestalde, Zerbitzuak aurrera jarraitu du aholkularitza tekniko, ekonomiko eta kontrolekoarekin obren gauzatze lanetan eta, orobat, aurreko planetan dirulaguntza jaso eta oraindik gauzatze fasean dauden obren segimenduarekin.

2.- Lurpeko Azpiegituren Plan Berezia.

2009 ekitaldian ondoren zehaztuko diren laguntzak onartu dira, partidan urte horretarako zainpetutako zenbatekoaren eta 2010eko konpromiso kredituaren kargura:

- Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 3ko 515/2009 zk.ko Erabakiaren bidez, zenbait dirulaguntza eman dira –guztira:

(7.536.533,42 € con cargo al 2009 y 4.974.219.20 € con cargo al crédito de compromiso 2010)

- 2ª Concesión: Acuerdo del Consejo de Diputados 760/2009, de 17 de noviembre (BOTHA, nº 139 de 4 de diciembre de 2009): se concedieron ayudas por importe de 2.128.000,00 €.

La aprobación de la Norma Foral 9/2009, de 15 de junio, de modificación puntual de la Norma Foral 14/1997, ha supuesto como modificaciones más significativas:

- La incorporación a la categoría de obra o servicio amparable de la Obra civil de las obras de canalizaciones subterráneas relativas a suministros domiciliarios de electricidad, telecomunicaciones, gas y alumbrado público.
- La derogación del apartado 2º del artículo 12 por la que se ha eliminado la obligación, para las Entidades Locales beneficiarias de subvenciones de aportar el 50% de los recursos financieros disponibles a financiar la obra o servicio subvencionado.
- Una actualización de los valores de los módulos del Anexo I la Norma Foral 14/1997. Esto ha supuesto un incremento significativo en los importes de los presupuestos subvencionables de las obras de pavimentación y de equipamiento.

Por otra parte, por el Servicio se han seguido ejerciendo las tareas de asesoramiento técnico, económico y de control en la ejecución de obras, así como el seguimiento de las subvencionadas en Planes anteriores y aún en fase de ejecución.

2.- Plan Especial de Infraestructuras Subterráneas.

En el ejercicio 2009, con cargo a la consignación presupuestaria anual de la partida y a su crédito de compromiso para el 2010, se aprobaron las siguientes concesiones:

- Mediante Acuerdo del Consejo de Diputados nº 515/2009, de 3 de agosto, se conceden subvenciones por importe de 1.429.251,16 €

1.429.251,16 euro (858.537,67 euro 2009ko aurrekontu zuzkiduraren kargura eta 570.713,49 euro 2010eko konpromiso kredituaren kargura), 2008 Programan diruz lagundutako obren finantzaketa osatzeko, hain zuzen, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren eta Inbertsioetarako Plan Bereziaren partiden kargura. Aurreko ekitaldian horiei ez zitzaien Lurpeko Azpiegituren Plan Bereziaren kargura dirulaguntza eman (2008 ekitaldiko plan horren aurrekontu mugak zirela eta)

- Diputatuen Kontseiluko uztailaren 28ko 487/2009 Erabakiaren bidez 243.042,53 euro eman dira (2010 konpromiso kredituaren kargura).

Ezarritako helburuen eta aurrekontu kontsignazioen aplikazioen arabera, gauzatze maila egokia izan da, bai kopuruz eta bai kalitatez.

4.- Toki Erakundeen Inbertsioetarako Funts Osagarria

70/2009 Foru Dekretua, ekainaren 20koa, Diputatuen Kontseiluarena. Horren bidez Arabako Toki Erakundeen Inbertsioetako Funts Osagarriaren Dirulaguntzak emateko oinarri arauak onartu dira.

Diputatuen Kontseiluko 2009ko abenduaren 15eko 856/2009 zk.ko Erabakiaren bidez 2009 Programaren laguntzak ematea onartu da; zenbatekoa: 3.294.732,68 euro (500.000,00 euro 2009ko aurrekontu zuzkiduraren kargura eta 2.794.732,68 euro 2010 konpromiso kredituaren kargura).

5.- Lurraldearen gasifikazioa

“Urtarrilaren 27ko Diputatuen Kontseiluaren 6/2009 Dekretuaren bidez, Arabako toki erakundeei 2009 programako gasifikazio laguntzak emateko oinarri arauak onartu ziren.

2009 ekitaldian, partidarako 535.929,93 euro eman ziren eta 2010 eta 2011 ekitaldietarako bi

(858.537,67 € con cargo a la disponibilidad presupuestaria del 2009 y 570.713,49 € con cargo al crédito de compromiso de 2010), para complementar la financiación de las obras subvencionadas en el Programa 2008 con cargo a las partidas del Plan Foral de Obras y Servicios y Plan Especial de Inversiones, que (por limitaciones presupuestarias de la partida de Plan Especial de Infraestructuras Subterráneas del ejercicio 2008) no fueron subvencionadas con cargo a este Plan en el ejercicio precedente.

- Mediante Acuerdo del Consejo de Diputados 487/2009, de 28 de julio, se conceden 243.042,53 € (con cargo al crédito de compromiso 2010).

El grado de cumplimiento, de acuerdo con los objetivos establecidos y a tenor de las aplicaciones de las consignaciones presupuestarias, puede ser considerado como satisfactorio, tanto desde el punto de vista cuantitativo como cualitativo.

4.- Fondo Complementario de Inversiones en Entidades Locales

Mediante Decreto 70/2009 del Consejo de Diputados de 20 de octubre se aprobaron las bases reguladoras para la concesión de las ayudas del fondo complementario de inversiones a las Entidades Locales de Alava 2009.

Por Acuerdo del Consejo de Diputados nº 856/2009, de 15 de diciembre de 2009, se aprueba la concesión de ayudas del Programa 2009, por una cuantía de 3.294.732,68 € (500.000, 00 € con cargo a la disponibilidad presupuestaria del 2009 y 2.794.732,68 € con cargo al crédito de compromiso 2010).

5.- Gasificación del territorio

Mediante Decreto 6/2009 del Consejo de Diputados, de 27 de enero, se aprobaron las bases reguladoras para la concesión de las ayudas a la gasificación a las Entidades Locales correspondientes al programa 2009.

La partida se dotó con 535.929,93 euros para el ejercicio 2009, y dos créditos de compromiso para los ejercicios 2010 y 2011 de 500.000,00 euros

konpromiso kreditu -bakoitza 500.000,00 eurokoa-

2009 ekitaldian eman ziren dirulaguntzak honako hauek izan ziren:

- Uztailaren 15eko 367/2009 Foru Aginduan adierazi den moduan, zenbait dirulaguntza eman dira –guztira: 1.040.981,63 euro- (40.981,63 euro 2009ko aurrekontuaren kargura; 500.000,00 euro 2010eko konpromiso kredituaren kargura eta 500.000,00 euro 2011ko konpromiso kredituaren kargura). Soberako saldoa –erreserbatutako 74.588,90 euro 2009 ekitaldiaren kargura- baliogabetu da.
- Urriaren 21eko 577/2009 Foru Aginduaren bidez zenbait dirulaguntza eman dira –guztira: 256.180,04 euro-, 2008 aurrekontu ekitaldia ixterakoan zenbateko bera edukitzeagatik bertan behera utzitako dirulaguntzak betetzeko.

  Bestalde, Aramaioko Udalak (20.730,84 euro), Langarikako Administrazio Batzarrak (43.221,10 euro) eta Antoñanako Administrazio Batzarrak (64.297,49 euro), 2008 Programan dirulaguntzaren onuradun diren aldetik, onartu zitzaien laguntza ukatu dute. Hori dela eta, ez da bertan behera utzitako dirulaguntza horien zenbatekoa bete (128.249,43 euro).
- Zenbait dirulaguntza eman dira partida horren kargura –zenbatekoa: 35.929,93 euro-, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura finantzatutako obren gasifikazioari buruzko ekintzak diruz laguntzeko.

6.- Auzokideen arteko Harremanen Sustapena

Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 27ko 4/2009 Foru Dekretuaren bidez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntzak emateko oinarriak onartu ziren, auzoen arteko harremanak sustatzeko 2009 programaren barruan.

Partidak hasiera batean 295.362,67 euro zituen baina uztailaren 15eko 368/2009 Foru Aginduan adierazten den moduan -horren bidez 2009 Programaren kargura zenbait dirulaguntza onartu ziren-, *“Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko Zerbitzuak eskaerak bideratu eta azatertu*



cada uno.

Las subvenciones concedidas a lo largo del ejercicio 2009 fueron las siguientes:

- Como se indica en la Orden Foral 367/2009, de 15 de julio, Se conceden subvenciones por importe de 1.040.981,63 euros (40.981,63 euros con cargo al presupuesto de 2009, 500.000, euros con cargo al crédito de compromiso de 2010 y 500.000, euros con cargo al crédito de compromiso de 2011). El saldo sobrante, 74.588,90 euros reservados con cargo al ejercicio 2009, se anula.
- Por Orden Foral 577/2009, de 21 de octubre, se consignan subvenciones por importe de 256.180,04 € con el fin de reponer las subvenciones anuladas por igual importe en el cierre del ejercicio presupuestario 2008.

  Por otro lado, el A. de Aramaio (20.730,84 €), la J.A. de Langarika (43.221,10 €) y la J.A. de Antoñana (64.297,49 €), beneficiarias de subvención en el programa 2008, han renunciado a la ayuda que tenían concedida. Por este motivo, no se ha procedido a reponer el importe de estas subvenciones anuladas (128.249,43 €).
- Con cargo a esta partida se han concedido subvenciones por importe de 35.929,93 € para subvencionar las actuaciones relativas a gasificación en obras financiadas con cargo al Plan Foral de Obras y Servicios.

6.- Promoción de Relaciones Vecinales

Mediante Decreto del Consejo de Diputados 4/2009 de 27 de enero, se aprobaron las bases reguladoras para la concesión de ayudas a las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava en el Programa 2009 de Promoción de Relaciones Vecinales.

La partida se dotó inicialmente con 295.362,67 Euros, pero como se indica en la Orden Foral 368/2009, de 15 de julio, mediante la que se aprueba la concesión de subvenciones con cargo al Programa 2009 “*Tras la instrucción y el análisis de las solicitudes por el Servicio de Plan Foral de*

*ondoren, guztira 460.507,48 euro eukitzeko beharraren berri ematen duen kide anitzeko organoaren akta ikusirik, eta laguntza horiei dirulaguntza ematen dien aurrekontu partidaren izaera loteslea kontuan hartuta, zenbateko hori duten dirulaguntzak eman behar dira".*

Ondorioz, 368/2009 Foru Aginduaren bidez, Auzokideen arteko Harremanen Sustapenaren 2009 Programaren kargura laguntzak ematea onartu da –zenbatekoa: 460.507,48 euro-.

6.- Beste jarduera batzuk:

2009 ekitaldian, beste jarduera batzuk burutu dira eta 17 Programan ezarritako xedeak lortzen lagundu izanagatik gailentzen dira:

1. Arabako Lurralde Historiko osoan lurreko telebista digitala zabaltzeko, Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta EUDELen arteko lankidetza hitzarmena. 2009 ekitaldian helburu hori lortzeko erabilitako aurrekontu partidaren zenbatekoa 650.000,00 eurokoa da.
2. Toki erakundeek obra eta zerbitzuetan egiten dituzten inbertsioekin kooperatzeko baliabideen kudeaketa hobetzeko prozesuarekin jarraitze aldera, ezarritako xedeak lortzeko eraginkortasunari eta erabilitako baliabideen eraginkortasunari dagokionez, Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Zerbitzuak erabilitako tresna informatikoak gaurkotzeko bi proiektu jarri dira abian.
   - Arabako herriguneetako azpiegituren eta ekipamenduen inbentarioa gaurkotzea. Proiektuaren zenbateko ekonomikoa 221.268,24 euro da (2009. urtean 11.268,24 euro; 2010. urtean 105.000,00 euro eta 2011. urtean 105.000,00 euro). Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioak eman du dirulaguntza proiektu honetarako, Plan Avanza - Servicios Públicos Digitales izenekoaren esparruan 105.485,00 euro.

*Obras y Servicios, y a la vista del acta del órgano colegiado proponente, que da cuenta de la necesidad de disponer de la cantidad total de 460.507,48 euros, y teniendo carácter vinculante de la partida presupuestaria que subvenciona este tipo de ayudas, procede conceder subvenciones por dicho importe*".

En consecuencia, por Orden Foral 368/2009, se aprueba la concesión de ayudas con cargo al Programa 2009 de Promoción de Relaciones Vecinales por importe de 460.507,48 euros

6.- Otras actuaciones:

Asimismo, a lo largo del ejercicio 2009, se han desarrollado otras actuaciones que por su contribución a la consecución de los objetivos fijados en el Programa 17 se destacan:

1. Convenio de Colaboración entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Álava y EUDEL para financiar la extensión de la televisión digital terrestre a todo el Territorio Histórico de Álava. El importe de la partida presupuestaria destinada a tal fin en el ejercicio 2009 ha ascendido a 650.000,00 €.
2. Para continuar con el proceso de mejora en la gestión de los instrumentos de cooperación a las inversiones de las Entidades Locales en obras y servicios, tanto en términos de eficacia en el logro de los objetivos marcados como de eficiencia en los recursos empleados, se han puesto en marcha 2 proyectos destinados a modernizar las herramientas informáticas utilizadas por el Servicio de Plan Foral de Obras y Servicios.
   - Modernización del Inventario de Infraestucturas y Equipamientos de los núcleos de población de Álava. El montante económico del proyecto asciende a 221.268,24 € (11.268,24 € en el 2009, 105.000,00 en el 2010 y 105.000,00 € en el 2011). Este Proyecto está subvencionado por el Ministerio de Industria, Turismo y Comercio con 105.485,00 € en el marco del Plan Avanza - Servicios Públicos Digitales.

- Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren, Inbertsioetarako Plan Berezien eta Lurazpiko Kanalizazioen Plan Bereziaren urteko deialdiak kudeatzeko programa informatiko berria. Proiektuaren zenbatekoa guztira 157.902,00 euro da (2009 ekitaldian 47.731 euro eta 2010 ekitaldian 110.531,00 euro).

**<u>II- Landa ongizatea hobetzea</u>**

Azpiprograma horrek, batez ere, obra txikiak burutzeko laguntzak eta ekitaldian zehar aurrekontuan sartutako dirulaguntza izendunak hartu ditu barne.

*1.- <u>Obra txikiak egiteko laguntzak</u>*

Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 27ko 5/2009 Foru Dekretuaren bidez Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntzak emateko oinarriak onartu ziren, obra txikiak egiteko 2009 programaren barruan.

Partidak hasiera batean 560.000,00 euro zituen baina Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 7ko 437/2009 zk.ko Erabakiaren bidez kreditu transferentzia onartu zen –zenbatekoa: 1.410.106,93 euro-. Ondorioz, 1.970.106,93 euroko aurrekontu zuzkidura sortu zen.

Uztailaren 13ko 364/2009 Foru Aginduaren bitartez Obra Txikiak burutzeko 2009 Programaren kargua laguntzak ematea onartu da –zenbatekoa: 1.970.106,93 euro-.

*2.- <u>Dirulaguntza izendunak</u>*

Haur Eskolak, erabilera anitzeko eraikinak, udalak, etab. eraikitzeko, ekitaldian zehar 7 dirulaguntza izendun eman ziren. Horietako 5 kasuan kasuko justifikazioaren ondoren ordaindu ziren. Horren harira, helburuen betetze maila egokia da ikuspegi kuantitatibotik eta kualitatibotik.



- Nuevo programa informático de gestión de convocatorias anuales de Plan Foral de Obras y Servicios, Plan Especial de Inversiones y Plan de Canalizaciones Subterráneas. El importe del proyecto asciende a un total de 157.902,00 € (47.731 en el ejercicio 2009 y 110.531,00 € en el ejercicio 2010)

**II– <u>Mejora del bienestar Rural</u>**

Este subprograma engloba principalmente las Ayudas de ejecución de Obras Menores y las subvenciones nominativas que se presupuestaron a lo largo del ejercicio.

*1.- <u>Ayudas de Ejecución de Obras Menores</u>*

Mediante Decreto del Consejo de Diputados 5/2009 de 27 de enero, se aprobaron las bases reguladoras para la concesión de ayudas a las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava en el Programa 2009 de Obras Menores.

La partida se dotó inicialmente con 560.000,00 €, pero por Acuerdo del Consejo de Diputados nº 437/2009, de 7 de julio, se aprobó una transferencia de crédito por importe de 1.410.106,93 €, lo que generó una disponibilidad presupuestaria de 1.970.106,93 €.

Por Orden Foral 364/2009, de 13 de julio, se aprueba la concesión de ayudas con cargo al Programa 2009 de Ejecución de Obras Menores por importe de 1.970.106,93 €.

*2.- <u>Subvenciones nominativas</u>*

Se concedieron 7 subvenciones nominativas durante el ejercicio para la construcción de Haur Eskolak, edificios multiusos, instalaciones deportivas, casas consistoriales, etc. de las cuales se abonaron 5 tras la correspondiente justificación, siendo el grado de cumplimiento de los objetivos satisfactoria tanto desde el punto de vista cuantitativo como del cualitativo.